

TOKIAN TOKIKO PROTOKOLOAK SINATZEKO ERREFERENTZIAZKO ORGANOEI BURUZKO SEGIMENDU BATZORDEAREN AKORDIOA.

Erakunde eskudunek emandako informazioaren arabera, Erakunde arteko Akordioaren Segimendu Batzordeak tokian tokiko protokoloak sinatzeko erreferentziazko organoak zeintzuk izango diren zehaztu du¹:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila: Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila: Gizarte Ongizateko zuzendaria.
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila: Kasuan kasuko ertzainetxeko unitateburua.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: Osakidetzako Osasun Laguntzako zuzendaria.
- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea: zuzendaria.
- Bizkaiko Foru Aldundia: Gizarte Ekintzako foru diputatua.
- Gipuzkoako Foru Aldundia: Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko foru diputatua.
- EAEko Auzitegi Nagusia: Gobernu Sala.
- EAEko Auzitegi Nagusiko Fiskaltza: fiskalburua edo honek berez ordeztu izendatutako pertsona.
- Legelarien Euskal Kontseilua: kasuan kasuko abokatuen elkargoko dekanoa.

Vitoria-Gasteizen , 2007ko maiatzaren 23an

¹ Erreferentziazko organoa zehaztea egiteko dago Arabako Foru Aldundiaren partetik.